

# TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN: DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN (Donostialdea-Bidasoa Behea) 2016/05/21

**Kokalekua:** Amarako Kultur Etxea (Donostia-San Sebastián)

**Iraupena:** 3 ordu eta erdi

## Parte hartzaileak

Izena	Udalerría	Elkarte/erakunde/...
Nahikari Otermin	Pasaia	Pasaiaiko Udala
Ramon Irazu Garmendi	Andoian	--
Jon Albizu	Donostia	EH Bildu
Imanol Goenaga	Andoain	--
Claudia Pennese	Donostia	Comisión Sostenibilidad del Colegio de Arquitectos de Gipuzkoa
Miren Lantz	Irun	Hiritik At
Xabier Garraus	Irun	Hiritik At
Laura Maioz	Hondarribi	--
Axier Jaka	Donostia	EH Bildu
Xotil Natka	Zaldibi	--
Andoni Egia	Donostia	Hiritik At

Izena	Udalerría	Elkarte/erakunde/...
Uxue Itoiz	Iruña	--
Joseba Charterina	Bilbo	--
Lauri Urkiza Lekue	Ondarroa	Gipuzkoako Mendi Federazioa (GMF)
Ainara Iñiguez	Donostia	--
Izaskun Aseginolaza	Donostia	--
Pedro Lasa	Donostia	--
Isabel Martin Ruiz	Donostia	--
Koldo Telleria	Segura	--

## Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Izaskun Iriarte Irureta	Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria
Rafael Sánchez Guerras	Arabako Lurralde Antolakuntzako Arduraduna

## Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Jon Aguirre Such	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru
Ainhoa Lopez Eiguren	Inguru

## Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie eta gero taldetan banatzeko pegatina bat ematen zaie.

Izaskun Iriarte Iruretak, Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordeak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariek eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitarteko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-parte hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailerrerako proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

### LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Jon Agirre Suchek.

### Lan-dinamika azaldu.

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Ana Izquierdok:

- Talde-lana (75 minutu): Tailerraren hasieran banatutako pegatinaren zenbakiaren arabera parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Horretarako bi panel ditu talde bakoitzak, landutako ideiak adieraziko dituztena (post it bat, ideia bat) eta landuko duten gaiari buruz oinarritzko dokumentuan datozen ideiak adierazten direna. Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat

azaltzen lehenak izan daitezten, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

## Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

### 1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea

#### 1.1. Paisaia

1.1.1. Landa-inguruneko garapen ekonomikoa paisaiarekin lotu behar da

1.1.2. Eremu industriala, urbanoa, rurala zaintzeko neurriak. Ez kontsumitu lur berririk, erabiliak birsortu-erregeneratu existentek

1.1.3. Paisaia produkzio ekonomiko bezala ulertu, aisialditik at produkzioari lotu. Adbidez, gerriko agroekologikoak gerriko berdeen ordeztu

#### 1.2. Ingurune fisikoaren antolamendua

1.2.1. Azpiegitura ezberdinen afekzioa neurtu, mugatu

1.2.2. Oihaneztapena: ez jarraitu zuzen ez autoktonoen landaketa bultzatzen

1.2.3. Gaur egungo arazo nagusia: Lurraldea faktore produktibo edo kapital bezala ulertzea, metaketa ekonomiko kapitalista ahalbidetzeko elementu nagusi bezala

1.2.4. Irizpiderik gabe eraiki da, leku uholdegarrietan, malkarretan... lurraldearen limiteak mantendu behar dira.

1.2.5. Hondakinen kudeaketa iraunkorra egin behar da, errauskailuak ekiditeko

#### 1.3. Klima Aldaketa

1.3.1. Energia-iturriak aldatu

1.3.2. Hiri-naturazioa

1.3.3. Inpermeabilizazio txikiagoa (zola eta gainazalak aldatu)

1.3.4. Ekoefizientzia

1.3.5. Efizientzia energetikoa

1.3.6. Uholdeak: itsasaldean, uraldiak eta herriguneetan

1.3.7. Bero-irla efektua

1.3.8. Inpermeabilizazioa / artifizializazioa

1.3.9. Biodibertsitate galera

#### 1.4. Korredore ekologikoak

- 1.4.1..Korredore ekologikoen arteko lotura fisikoak sortu eta hauek babestu
- 1.4.2.Naturazioa
- 1.4.3.Iragazkortasuna
- 1.4.4.Drainatze iraunkorra
- 1.5. Azpiegitura berde integratua
  - 1.5.1.Hiri-naturazioa
    - 1.5.1.1. Teilatu lau ekologikoak
    - 1.5.1.2. Zola iragazkorrak
    - 1.5.1.3. Euri-lorategiak
    - 1.5.1.4. Euri-ur biltegi iraunkorrak
    - 1.5.1.5. Hiri-baratzeak
    - 1.5.1.6. Hiri-birsorkuntza
- 2. Landa-ingurunea
  - 2.1. Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
    - 2.1.1.Garraio publikoa sustatu eta areagotu, hiriguneak landa-inguruneekin lotzeko (fokua, azpiegiturak kontzentratzen dituzten hiri handietan)
    - 2.1.2.Garapen eredia explizitatu eta haien aldeko apustu garbia egin (Iparraldeko ELB sindikatuak proposatzen duena)
    - 2.1.3.Espazio monofuntzionalak ekidin, nola uztartu landa eta industria?
    - 2.1.4.“Hiri” erreferentziak ez daitezela nukleo txikietatik hain urrun egon.
    - 2.1.5.Landa-lurzorua hiri-lurzoruaren maila berean ordenatu, baina bere garrantzia emanaz.
    - 2.1.6.Gaur egun herriak lo-herri bihurtzen ari dira (nortasun galera). Lehen industria eta baserri produktiboen artean oreka zegoen. Baina fabriken itxierarekin, jendeak emigratu egin du.
  - 2.2. Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
    - 2.2.1.Landa garapen eta turismoaren oreka bilatu
    - 2.2.2.Jasangarritasun, bionaiztasun eta aniztasun parametro errealak integratu. Zehazgarriak
- 3. Hirigunea
  - 3.1. Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
    - 3.1.1.Turisten ibilgailuen kontzentrazio arazoak

- 3.1.2. Turismoa kudeatzeko eremuak ez dira zertan bat etorri behar beste eremu administratiboekin.  
Lurralde banaketa propioa
- 3.1.3. Turismo eredu berria ez dadila herri mediatikoaren plangintzara mugatu, herritarren herria ere kontutan izan dezala.
- 3.1.4. Ostatu berrientzako emandako lizentzia kopurua mugatu.
- 3.1.5. Garapen turistikoa herrien funtzionaltasunera eta egiturara egokitua.
- 3.1.6. AirBNB bezalako turismo moduen perbertsioa:
  - 3.1.6.1. Jentifikazioa
  - 3.1.6.2. Herritarrei etxebizitzak kentzen
- 3.1.7. Herritarren etxeetan ostatu emango den beste turismo mota baten beharrezana.
- 3.2. Mugako herriak
  - 3.2.1. Gertu dauden herriek elkarrekin egin beharko lukete plangintza, funtzionaltasun territoriala gailendu muga administratiboan gainetik
  - 3.2.2. Planeamendu koordinatu eta transbertsala
- 3.3. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
  - 3.3.1. Industria eta erosketa eremu handiak eta hauen hedapena mugatu. Hirigunean merkataritza eta bizi-tegi erabilera mixturak bilatu
  - 3.3.2. Berriak sortu aurretik “dagoenaren” erabilpena bermatu
- 3.4. Hiri hazkundera
  - 3.4.1. Hiri-birsorkuntza sustatu
  - 3.4.2. Inpaktu baxuko hirigintza teknikak
  - 3.4.3. Egoitza kuantifikazioa zalantzan jarri (kendu edo behar bezala birpentsatu)
- 4. Mugikortasun jasagarria eta azpiegiturak.
  - 4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
    - 4.1.1. Multimodalitate erreala bilatu, bizikleta sarea garraio publikoarekin lotu, planteamendu erreala eginez.
    - 4.1.2. Funtzionamendu eta lotura onak dituen bidegorri sarea.
  - 4.2. Bide-mugikortasuna
    - 4.2.1. Mugikortasun egitura ezberdinen arteko koordinazioa, bikoiztasunak ekidin
    - 4.2.2. Kotxearen erabilera mugatu, erabiltzaileei aukera erreala sortuz erdiguneetara iristeko

4.2.3. Bide-azpiegitura gehiegi daude, beharrianak bikoiztuz

4.3. Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna

4.3.1. Abiadura handia, nork erabaki du hau? Nora darama gure lurraldea? (herriak gehiago babestu behar dira) Ez dugu ezagutzen lurraldean izango duen inpaktu erreala ez eta sustatzen egon daitekeen desoreka.

4.3.2. Aireportuen planteamendu globala, partekatua

4.4. Talde mugikortasun multimodala

4.4.1. Garraio bide ezberdinak koordinatu ordutegietan eta txartel batean sartu

4.4.2. Gertuko (herriz herri) mugikortasuna indartu hiriburuen artekoaren gainetik

4.5. Eredu logistikoa

4.5.1. Zalantzan jartzen da Europako nodo estrategikoan egon behar dugun eta hau bultzatu behar den.

4.6. Ura

4.6.1. Hiriko drainatze sistema iraunkorrak.

4.6.2. Hiri-auria = baliabidea

4.6.2.1. Jatorrian gorde/biltegitatu

4.6.2.2. Hondar-urak murriztu (auria)

4.6.2.3. Karga freatikoa

4.6.2.4. Ingurune urtar hartzailearen kalitatea

4.6.2.5. Murriztu

4.7. Energia

4.7.1. Eskala txikiko produkzio eta distribuzio baliabideak indartu

4.7.2. Ekoizpen berriztagarriak sustatu

5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurralde-integrazioa eta parte hartzea

5.1. Genero ikuspegia

5.1.1. Hirien mugikortasun ez motorizatua lehenetsi, kale erabilgarriak sustatuz

5.1.2. Gizatalde pluralen beharri zehatzeko erantzuteko gai den mugikortasun sistema bat egon dadila.

5.2. Euskara

5.2.1. Arazoa identifikatuta dago, soluzioa ez dakigu

### 5.3. Lurraldeen arteko harremana

#### 5.3.1. Garraio publikoaren arteko koordinazioa. Mugikortasuna

### 5.4. Parte hartzea eta gobernantza

#### 5.4.1. Informazioa eskuragarri egon behar da

#### 5.4.2. Baliagarriak izateko loteslea eta gai inportanteetara bideratuta egon behar da, adibidez AHT-aren inguruan erabakitzer

#### 5.4.3. Proiektuak inpaktu sozial eta ekonomikoetara itzuli eta herritarrek informazioa izatea bermatu (merkataritza zentroen adibidea)

#### 5.4.4. Proiektuen inpaktu sozial eta ekonomikoa neurtu eta ez mugatu soilik epe motzera. Adibidez, gerora funtzionatu ez duten merkataritza gunek egiteko lehengo hornidura-azoken eraikinak bota dira.

#### 5.4.5. Zehaztasun metodologikoa

#### 5.4.6. Komunikazio kanal/forma alternatiboak erabili, gizartean eragin handiagoa sortzeko.

#### 5.4.7. Parte hartzeak lasai eta denboraz egin behar dira, lehenengo jendartea ongi informatu behar delako.

#### 5.4.8. Administrazioak prozesu parte hartzaile lotesleak garatu ditzala

#### 5.4.9. Prozesu parte hartzaileak ahalduz prozesu bihurtu

#### 5.4.10. Erabakigarriak diren prozesu parte hartzaileak

#### 5.4.11. Planeamenduaren beharrianak partaidetzarekin erabaki daitezela